

BAZTANGO GURASO ELKARTEEN 2025EKO DITUZTEN KULTUR JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK

Atarikoa

Baztango Udalak, bere Kultura Zinegotzigoaren bidez, Baztango haurren kultura prestakuntzan lagunduko duten egitasmo eta jardueren garapena sustatzea du helburuetako bat. Horretarako Baztango Guraso Elkarteei baliabide ekonomikoak bideratuko zaizkie.

Beraz, indarrean dauden udal-aurrekontuen mugen barruan, eta kontuan hartuta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak finkatzen dituen printzipioak (publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objetibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza), 2025ean Baztango guraso elkarteek jarduerak egin ditzaten dirulaguntza deialdia proposatzen da.

1. Deialdiaren xedea

- 1.1. Deialdi honetarako diru-kopurua, gehienez ere, 6.000 eurokoa da, 2025. urteko aurrekontuan dagoen 1-3340-4890001 "Guraso elkarteak kultur jarduer. dirul." kontu-sailean jaso. Aurrekontu-zuzkidura osoa agortzen ez bada, Baztango Udalak 1-3340 4890000 kontu-sailera zuzenduko du.
- 1.2. Deialdi honen xedea Baztanen egoitza soziala duten guraso elkarteei dirulaguntza ematea da, guraso-elkarteen bidez hezkuntza- eta kultura-jarduerak programatzen eta antolatzen laguntzeko.
- 1.3. Ondoko ezaugarriak dituzten jarduera soziokulturalak egiteko laguntza ekonomikoa ematea:
 - a) Euskararen erabilera bultzatzea.
 - b) Formakuntzakoak izatea (ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak...).
 - c) Sormenekoak (erakusketak...) izatea.
 - d) Artistikoak (antzezlanak, bideo emanaldiak, kontzertuak...) edo antzeko izaera duten jarduerak izatea.
 - e) Herritar guziendako irekiak izatea.
 - f) Ikuspegi inklusiboa eta hezkidetzakoa duten kultura-jarduerak; horrela, proposatutako ekintza guztiek ikasleen eta familien aniztasuna kontuan hartuko dutela (generoa, kultura, behar ekonomikoak, hezkuntzakoak eta bereziak) ulertzen da, eta ikasle guztiek parte har dezaten neurri egokiak ezarriko dituztela.
- 1.4. Jardueren edukiak ondorengo helburuak betetzera bideratu beharko dira:
 - Baztango haurren kultura prestakuntzan laguntzen duten egitasmo eta jardueren garapena sustatzea, eta hori lortzeko guraso elkarteei laguntza ekonomikoa ematea.
 - Laguntza ekonomikoa ematea Baztanen legezko egoitza duten guraso elkarteei, pertsonen kultura garapena bultzatzen duten jarduerak edo programak

garatzeko, balio hauek bereziki aintzat harturik, bertzeak bertze: genero indarkeriaren zein indarkeria fisikoaren aurkako baloreak, belaunaldien arteko harremanak, gure herriko ingurunearen, kulturaren edo historiaren ezagutza.

- Eskolako ordutegitik kanpo jarduerak egiteko erraztasunak ematea, betiere haurren arteko harremanetarako elkarguneak ahalbidetzen dituztenak, laguntasuna eta elkarbizitza sustatuz.
- Haurren kultura formakuntzan laguntzen duten jarduera oro, orokorki 'eskolaz kanpokoak' edo 'osagarriak' izenez ezagutzen direnak sustatzea.
- Hezkidetzak sustatzen duten eta genero-rol eta -estereotipoei dagokienez hezkuntza ekitatiboa sustatzen duten sentsibilizazio-jarduera kulturalak sustatzea, hala, familia erantzukizun eta generoarekin lotutako pertsonen zaintzan eraginez.
- Ikuspegi inklusiboa eta hezkidetzakoa duten kultura-jarduerak bultzatzea. Horrela, proposatutako ekintza guztiek ikasleen eta familien aniztasuna kontuan hartuko dutela (generoa, kultura, behar ekonomikoak, hezkuntzakoak eta bereziak) ulertzen da, eta ikasle guztiek parte har dezaten neurri egokiak ezarriko dituztela.

1.5. 2024ko azaroaren 1etik 2025eko azaroaren 1era bitarte burutzen diren jarduerak dira diruz lagunduko direnak.

- Jarduerak finantza-bideragarritasuna izan beharko du. Elkarre onuraduna Baztango Udalaren dirulaguntzaren bidez estali ez den gastua estaltzeaz arduratuko da eta, horretarako, finantzazio publiko edota pribatuko bertzetik iturri batzuek baliatuko da.

Gastu hauek onartuko dira:

- Egoera sozioekonomiko ahulean dauden pertsonen laguntza ematen dietenak, diruz lagundutako proiektua osatzen duten jardueretara joateko zailtasunak badituzte matrikula gastuen ondorioz. Hauen onarpenerako, Baztango Udaleko Oinarrizko Zerbitzuaren txostena beharko da.

1.6. Deialditik kanpo geratuko dira:

- Haurrentzat ez diren jarduerak.
- Inola ere ez dira diruz lagunduko mantenu gastuak (bazkariak, afariak, ahamenak...).
- Inola ere ez da diruz lagunduko inbentarioko materiala (ordenagailuak, irratia, altzariak, funts bibliografikoak...). Soilik liburu erosketak lagunduko dira diruz, betiere liburu horiek zerikusi zuzena dutenean antolatutako jarduerekin (literatura topaketekin, ipuin kontalariarekin...).
- Ezaugarri sexistak, arrazistak, indarkeriazkoak, etabarrekoak dituzten jarduerak.
- Diru-sarrera propioak eta nahikoak dituzten eta defizitik ez duten jarduerak.
- Ageriki faltsukeriaz egindako eskaerak, edo osatu gabe daudenak.

- Aurreko urteetan gastuak justifikatu ez zituzten eskaerak edo dirulaguntza bat jasotzeak dakartzan eginbideak bete ez zituztenak.
- Udal eskaintzarekin lehiatuko diren jarduerak.
- Hezkuntza programetan aurreikusitako edo horiei lotutako irakaskuntza-jarduerak.
- Kirol-jarduerak.
- Nafarroako Gobernuak edo bertze erakunde batzuek diruz erabat lagunduak.
- Ikastetxeak ikasleei arratsalde arreta emateko antolatzen dituen jarduerak.
- Egoitza edo lokalak egokitze lanak edo hirigintza arloko bertze edozein lan.
- Funtzionamendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, langileen nominak...).
- Zaintza kontzeptuko ordainagiriak,

2. Entitate Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

Dirulaguntza deialdi honetan Baztanen helbidea duten eta udalerriaren intereseko zerbitzuak ematen edo jarduerak egiten dituzten guraso elkarteek parte har dezakete, betiere, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean honako baldintzak betetzen badituzte (dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomiko osoan iraun behar dutenak):

- Beren estatutuetan ezarritakoari jarraikiz kultura esparruan jarduerak garatzea.
- Pertsona juridikoa izatea, legalki eratua eta behar bezala izena emanda egotea Nafarroako Gobernuko Elkartearen Erregistroan. Hori frogatzeko, elkartearen estatutuen kopia aurkeztu behar da. Baztango Udalak agiri horiek jada bere eskuetan baditu, nahikoa izanen da agiri horiek aldatu ez direla adierazten duen legezko ordezkariaren aitorpena. III eranskina.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte-segurantzakoak eguneratuta edukitzea.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak dagozkien egiaztagiri bidez egiaztatuko dira.
- Baztango Udalarekiko zerga betebeharrei dagokienez, ofizioz egiaztatuko dira. Era berean, emakidaren proposamena egin aurretik, ofizioz egiaztatuko da ez duela Udalaren Diruzaintzan deus ordaintzeke.
- Aitzineko urteetan jasotako dirulaguntzen zenbatekoen egiaztatu gabeko deus ez izatea Baztango Udalarekin.
- Dirulaguntza eskatzen den egitasmorako Baztango Udalarekin lankidetzak hitzarmenik, zerbitzu kontrataziorik edo bertze era bateko kontratu edo konpromisorik sinaturik ez edukitzea eta jarduera bererako Udalaren beste arlo batzuetako diru-laguntzarik ez izatea.
- Jarduerak Baztango udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza bete behar du. Baita 36/2024 Foru dekretua, apirilaren 17koa, ekitaldi publikoei eta jasangarritasunari buruzkoa 2024ko 91 Nafarroako Aldizkari ofiziala, maiatzaren 3koa.

3. Eskaeren aurkezpena

3.1. Guraso elkarteetako lehendakaritza edo ordezkariak egin beharko dituzte eskaerak.

3.2. Eskabideak behar bezala beterik (deialdi honetan dagoen I. eranskinaren arabera) eta telematikoki aurkeztu beharko dira, Baztango Udalaren erregistro elektronikoaren bidez [Sede Electrónica - BAZTAN](#) edo edozein erregistro ofizialen bidez, elkartearen legezko ordezkaritza duen pertsonak.

- Eskaerak aurkezteko epea 2025eko azaroaren 3a (egun hori barne) izanen da.
- Deialdian aurkezteak oinarrien onarpena suposatzen du, eta eskaerak emandako ereduaren arabera bete beharko dira.
- Dirulaguntzak emateko prozedura antolatze eta bideratzeko organo eskuduna Alkatetza edo honek ahalmen hori eskuordetzan eman dion organoa izanen da.
- Balorazioa. Eskabideen ebazpen-proposamena egiteko balorazio-batzorde eskuduna honako hauek osatuko dute: Kultura zinegotziak, Kultura teknikariak eta talde politiko bakoitzak izendatutako zinegotzi batek. Halaber, balorazio batzordeak balorazio batzordeko kide ez diren teknikarien aholkularitza eskatzen ahalko du.

3.3. Eskaerarekin batera (I. eranskina) honako agiri hauek joanen dira:

- Jardueren zerrenda (II. eranskina eredu hartuta), dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean behar diren datuak dituzten jarduera guztiekin.
- Idatzizko konpromisoa Udalaren dirulaguntza jasotzeko aurkeztu diren jardueren hedapen eta publizitate euskarrietan honako hau paratzeko: Baztango Udalaren armarria eta “Laguntzailea: Baztango Udala” esaldia.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Baztango Udalarekiko betebeharrak fiskalei dagokienez, ofizioz egiaztatuko dira.

Era berean, emakidaren proposamena egin aurretik, Udaleko Diruzaintzan zenbatekorik ordaintzeke ez duela ofizioz egiaztatuko da.

- Elkarre eskatzailearen legezko ordezkariaren adierazpen arduratsua, elkarte Nafarroako Gobernuaren Elkarre Erregistroan izena emanda dagoela jasoko duena eta honako hau ere azalduko duena (III. Eranskina eredu harturik): Erregistro horretan aurkeztutako dokumentazioak aldaketarik ez duela izan.

3.4. Diruz lagunduko den zenbatekoa onartzen den aurrekontuaren portzentaje bat izanen da, kontuan izanda —arau orokor gisa— dirulaguntzaren gehienezko kopurua aurrekontu horren % 70ean finkatuko dela. Azkeneko

kostu erreala hasieran aurreikusi denarena baino txikiagoa bada, dirulaguntza proportzionalki murriztuko da, azken kopuruetara egokituz.

Dena dela, diru-laguntzen onuradunek ezin izanen dute 2.000 € baino gehiago jaso deialdi bakoitzeko.

- 3.5. Behin eskaera aurkeztuz gero, aurkeztu diren agiriak oinarri hauetan eskatutakoarekin bat datozela begiratuko da. Akatsak zuzentze aldera, gehienez ere 10 egun naturaleko epea emanen zaio eskatzaileari zuzenketa eskaria jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hala egiten ez badu, eskaera artxibatuko da eta eskatzaileak bertan behera utzi duela ulertuko da.

Errekerimenduak posta elektronikoz eginen dira, eskaera-inprimakian jasotako helbidera zuzenduta.

4. Banatzeko irizpideak

Aurkeztu diren eskaerak aztertuko ditu Baztango Udalak eta dirulaguntzak emango ditu ondoko irizpideei jarraituz:

- a) Aurrekontu-partida osoaren % 20 onartutako eskaeren artean banatuko da, zati berdinetan.
- b) Jardueren izaera hezigarria. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.
- c) Jarduera tokiko kulturari lotua izatea lehenetsiko da. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.
- d) Euskararen erabilera eta sustapena bultzatzea Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.
- e) Herritarren parte hartzea baloratuko da. Borondatezko lana kontuan hartuko da. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.
- f) Jarduera erakunde eskatzaileak berak eta haren kideek antolatua eta burutua izatea balioetsiko da. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 30.
- g) Baztanen egoitza soziala duten erakunde desberdinen arteko elkarlana baloratuko da. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.
- h) Norberaren herritik kanpo egiten diren ekitaldiak, Baztango gainerako herrietan egiten direnak alegia, baloratuko dira. Gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 10.

5. Dirulaguntzen ebazpena

Dirulaguntzaren ebazpena Baztango Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren bidez eginen da. Erabakia interesdunei jakinaraziko zaie eta Udaletxeko iragarki-oholean argitaratuko da. Guraso Elkarteek 15 egun naturaleko epea izanen dute, hala nahi balute, emandako dirulaguntzari uko egin ahal izateko.

6. Dirulaguntzaren justifikazioa

- 6.1. Ordainketa agindua eman ahal izateko, guraso elkarteak emakidaren erabakian eta deialdi honetan eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzea ezinbestekoa da.

Horretarako, 2025eko azaroaren 3a baino lehen telematikoki, Baztango Udalaren erregistro elektronikoaren bidez (Sede Electrónica - BAZTAN) elkartearen legezko ordezkaritza duen pertsonak ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

- Gastuen justifikazioa (IV. eranskina eredu hartuta). Gastuak fakturen, nominen eta halakoen —jatorrizkoak edo kopia konpultsatuta— bidez justifikatu behar dira, indarrean dagoen legeriaren arabera eginda eta diruz lagundutako jardueraren arabera ordenatuta. Hartu-agiriak soilik bertze modu batez egiaztatu ezin diren gastuak zurrizko onartuko dira eta, edonola ere, hartu-agiria sinatzen duen pertsona ezin izanen da enpresaria edo profesionala izan. Hala balitz, faktura egitera eta ematera behartuta bailegoke. Hartu-agiriak datu hauek bildu beharko ditu: jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-abizenak, IFZa eta helbidea; ekintza edo zerbitzuaren deskripzio zehatza; guztizko prezioa, tokia, data eta jasotzailearen sinadura. Ordainagiriekin eta fakturekin batera, banku-ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

Irteera kulturalak. Udalerrikan kanpoko joan-etorri gastuak onartuko dira. Era berean, sarrera txartelen (bisita gidatuen, museoetarako sarrereren...) gastuak onartuko dira.

Joan-etorriak norberaren autoan egiten badira, gastuak justifikatzeko agiritan ibilgailua nork eraman duen agertu behar da, joan-etorria nondik norat egin den, zertarako egin den eta data. Joan-etorria garraio enpresa baten bidez eginez gero, garraio enpresako faktura aurkeztu beharko da eta, bertan, legeak eskatzen dituen datu guztiak agertuko dira, bai eta jarduera edo zerbitzuaren deskripzio zehatza ere (joan-etorria nondik norat egin den, zertarako egin den, data). Diruz lagundutako jarduera bakoitzeko IV. eranskin bat aurkeztu behar da.

- Deialdiaren 7.2 puntuan zehazten diren baldintzak bete direla egiaztatzen duen adierazpena.
- Hala balegokio, kontzeptu berarengatik jasotako diru-laguntzen egiaztagiria zeinetan argi eta garbi zehaztuko baita zeintzuk diren diru-laguntza jaso duten jarduerak. Lege-ordezkariek izenpetutako agiria aurkeztu behar da. Agiri horretan honako hau zehaztuko da: jasotako dirulaguntza, zein jardueratara bideratu den hura, aurrekontua, diru-sarrerak eta defizita.

Bertze dirulaguntza batzuk jaso dituzten jarduerak ez dute izanen Udalaren dirulaguntza jasotzeko aukerarik, jasotako dirulaguntzarekin defizita erabat estali gabe geratu direnak izan ezik.

6.2. Dirulaguntzari dagokion justifikazioa aurkeztu eta gero, deialdi honetako 6.1 puntuan jasotako baldintzekin bat ote datorren begiratuko du Udalak.

7. Onuradunen betebeharrak

7.1. Diruz lagundutako jarduerak aldaketaren bat jasanez gero, antolatzaileek derrigorrez jakinarazi beharko diote Kultura Arloari.

7.2. Eskatzaileek dirulaguntza jasoko duten jarduerari dagozkien hedapen eta publizitate euskarrietan Baztango Udalaren armarrria eta "Laguntzailea: Baztango Udala" esaldia jarri beharko dute derrigorrez.

7.3. Proiektua edo jarduera gauzatzean sortzen diren agiri, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista erabili beharko da, emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihestuz, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak dituen irudiak sustatu beharko dira. Horretarako, onuradunek, "Guía sobre estrategias de comunicación incluyente: El Género como prioridad" gida kontsulta dezakete, helbide honetan eskuragarri dagoena: <https://labur.eus/ComunicacionIncluyente>

7.4. Elkarte eskatzaileek memoria bat aurkeztu beharko dute, diruz lagundutako jardueraren erabiltzaileen edo onuradunen eta proiektua edo jarduera gauzatzera atxikitako langile kontratatuen edo boluntarioen datuak sexuaren arabera bereizita.

8. Balizko ez-betetzeak eta ondorioak

Bidezkoa izanen da jasotako diru kopuru osoa edo zati bat itzultzea eta dirulaguntza ordaintzen den unetik aitzina berandutza interesak eskatzea, honako kasu hauetan:

- a) Dirulaguntzaren helburua betetzen ez denean.
- b) Dirulaguntza horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe eskuratzen denean, onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.
- c) Jasotako dirua zertan erabili den erakusteko beharra betetzen ez denean.
- d) Baztango Udalaren beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna, horiek bateragarriak ez badira.
- e) Dirulaguntza emateko kontuan izan diren baldintzak aldatu edo betetzen ez direnean.
- f) Deialdi honetan aipatzen diren egiaztapen egintzei trabak jartzen direnean eta horiei men egin beharra betetzen ez denean.
- g) Beste kasu batzuetan, berariazko arau edo oinarrietan arautuak daudenak.

Dirulaguntza itzultzeko ebazpena dirulaguntza eman duen organoak emango du, aplikatu beharreko legeria orokorraren arabera espedientea bideratu ondoren.

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira eta horiek kobratzeko, diru-bilketaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoa aplikatuko da.

9. Onartzea eta interpretatzea

9.1. Deialdi honetan parte hartzeak bertako baldintza guztiak onartzea dakar.

9.2. Baztango Udalari dagokio baldintzen erranahia interpretatzea, haien alderdi guztiak barne.

10. Arau-hauste eta zehapenak

Dirulaguntzen eta laguntza publikoen arloko arau-hausteak eta zehapenak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoak aginduko du.

11. Dirulaguntzetarako araudia

Honako deialdi hau bertan jasota dauden baldintzekin kudeatuko da, eta, oinarri hauetan aurreikusi ez den alderdi orotan, ondoko araudiak aginduko du: dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2033 Lege Orokorra; Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea; Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko

Foru Legea; eta, arau osagarri gisa, Aurrekontuen Lege Orokorra, eta dirulaguntzei buruzko Estatuko Araudia.

- I. ERANSKINA
- II. ERANSKINA
- III. ERANSKINA
- IV. ERANSKINA

BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PÚBLICA DE SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES CULTURALES PROMOVIDAS POR LAS ASOCIACIONES DE PADRES Y MADRES DE BAZTAN PARA EL AÑO 2025

Preámbulo

El Ayuntamiento de Baztan, a través de su Concejalía de Cultura tiene entre sus objetivos fomentar el desarrollo de proyectos y actuaciones que contribuyan a la formación cultural de las niñas y niños de Baztan, facilitando para ello recursos económicos a las Asociaciones de padres y madres de Baztan.

Por lo que dentro de los límites del presupuesto municipal vigente y teniendo en cuenta los principios establecidos en la Ley 38/2003, del 17 de noviembre, General de Subvenciones, de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, se propone la convocatoria de subvenciones para actividades de las APYMA de Baztan para el año 2025.

1. Objeto de la convocatoria

- 1.1. La dotación máxima de esta convocatoria es de 6.000 euros según la partida presupuestaria 1-3340-4890001 "Subvenciones a APYMAS activ. culturales" del presupuesto del año 2025. En el caso de que esta dotación presupuestaria no se agote en su totalidad el Ayuntamiento de Baztan la destinará a la partida 1-3340 4890000.
- 1.2. Esta convocatoria tiene por objeto proporcionar una ayuda económica a las Asociaciones de padres y madres con domicilio social en Baztan, para ayudar a la programación y organización de actividades educativo-culturales a través de las propias Asociaciones de padres y madres.
- 1.3. Apoyar económicamente la realización de actividades socioculturales.
 - a) Que favorezcan el uso del euskera.
 - b) De carácter formativo (cursos, talleres, conferencias...).
 - c) De carácter creativo (exposiciones...).
 - d) De carácter artístico (teatro, vídeo, conciertos...) u otras de naturaleza semejantes.
 - e) Que sean abiertas a toda la población.
 - f) Actividades culturales con perspectiva inclusiva y coeducadora, con ello se entiende que todas las acciones propuestas tendrán en cuenta la diversidad existente en el alumnado (género, cultural, necesidades económicas, educativas y especiales) y sus familias y establecerán las medidas oportunas para que todo el alumnado pueda tomar parte en las mismas.
- 1.4. El contenido de las actividades deberá contribuir al cumplimiento de los siguientes objetivos:

- Fomentar el desarrollo de proyectos y actuaciones que contribuyan a la formación cultural de la población infantil de Baztan, facilitando para ello recursos económicos a las Asociaciones de padres y madres.
- Proporcionar una ayuda económica a las Asociaciones de padres y madres, legalmente constituidas en Baztan, para el desarrollo de actividades o programas que fomenten el desarrollo cultural de la persona, incidiendo en valores como el rechazo a la violencia, física y a la de género, las relaciones intergeneracionales, el conocimiento del medio, de la cultura o de la historia de nuestro pueblo.
- Facilitar la realización de actividades que, fuera del horario lectivo, posibiliten puntos de encuentro para la relación entre las niñas y niños, el fomento del compañerismo y la convivencia.
- Promover todo tipo de actividades denominadas, genéricamente, como extraescolares o complementarias, que contribuyan a la formación cultural.
- Fomentar actividades culturales de sensibilización que fomenten la coeducación y que incentiven una educación equitativa en lo que a roles y estereotipos de género se refiere, incidiendo así en la asunción de responsabilidades familiares y cuidado de las personas asociadas también al género.
- Apoyar actividades con perspectiva inclusiva y coeducadora, con ello se entiende que todas las acciones propuestas tendrán en cuenta la diversidad existente en el alumnado (género, cultural, necesidades económicas, educativas y especiales) y sus familias y establecerán las medidas oportunas para que todo el alumnado pueda tomar parte en las mismas.

1.5. Se subvencionan actividades realizadas entre el 1 de noviembre de 2024 y el 1 de noviembre de 2025.

- La actividad tendrá viabilidad financiera. La asociación beneficiaria será la responsable de cubrir los gastos no cubiertos por la subvención del Ayuntamiento de Baztan, y para ello se valdrá de otras fuentes de financiación públicas o privadas.

Se admitirán los gastos:

- Los gastos de matrícula que faciliten la asistencia de personas que, por su situación socioeconómica desfavorecida, tengan dificultades para poder asistir a las actividades que integren el proyecto subvencionado. Para su admisión se requerirá un informe del Servicio de Base del Ayuntamiento de Baztan.

1.6. Quedan excluidas expresamente de esta convocatoria:

- Las actividades que no vayan dirigidas específicamente a la población infantil.

- En ningún caso se subvencionarán gastos de manutención (comidas, cenas, “lunch”, etc.).
- En ningún caso se subvencionará material inventariable (ordenadores, radios, mobiliario, fondos bibliográficos...). Sólo se podrá subvencionar la adquisición de libros, siempre y cuando éstos tengan relación directa con alguna de las actividades programadas (encuentros literarios, cuenta-cuentos...).
- Actividades que incluyan aspectos sexistas, racistas, de violencia, etc.
- Actividades que tengan ingresos propios de la actividad suficientes y no presenten déficit.
- Solicitudes que incurran en falsedad manifiesta o figuren incompletas.
- Solicitudes que en años anteriores no justificaron los gastos o incumplieron los compromisos que se derivan de la obtención de una subvención.
- Las actividades que entren en competencia con la oferta municipal.
- Las actividades de carácter docente, previstas o paralelas a programas de enseñanza-
- Las actividades de atención al alumnado en horario de tarde organizadas por el centro.
- Actividades de carácter deportivo.
- Las actividades subvencionadas totalmente por el Gobierno de Navarra u otros organismos.
- La adecuación de locales o cualquier otro tipo de intervención urbanística.
- Los gastos derivados del funcionamiento (alquiler, teléfono, luz, nóminas de personal...).
- Recibos en concepto de vigilancia.

2. Requisitos a cumplir por las entidades convocantes

Pueden solicitar la subvención con cargo a la presente convocatoria las Apymas con domicilio en Baztan que presten servicios o realicen actividades de interés municipal y que a la finalización del plazo de presentación de solicitudes reúnan los siguientes requisitos, que deberán mantener durante los ejercicios económicos para los que se concede la subvención:

- Que desarrollen actividades conforme a lo establecido en sus estatutos en el ámbito de la cultura.
- Ser persona jurídica, legalmente constituida y estar debidamente inscrita en el registro de Asociaciones del Gobierno de Navarra. Se deberá aportar copia de los estatutos. Si esta documentación obra ya en poder del Ayuntamiento de Baztan, sólo será necesario aportar una declaración responsable de la persona representante legal indicando que la misma no se ha modificado. Anexo III
- Estar al corriente de las obligaciones fiscales y de Seguridad Social.

- El cumplimiento de las obligaciones con la Hacienda Foral y con la Seguridad Social se acreditará mediante la presentación de las certificaciones correspondientes.
- En el caso de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Baztan se comprobará de oficio. Así mismo, previamente a la propuesta de concesión, se comprobará de oficio que no tiene cantidad pendiente de pago a la Tesorería Municipal.
- No tener pendiente la justificación de importes de subvenciones recibidas en años anteriores con el Ayuntamiento de Baztan.
- No tener suscrito un convenio de colaboración, una contratación de servicios, u otro tipo de contratos o compromisos con el Ayuntamiento de Baztan respecto al proyecto para el que se solicita financiación, así como no disponer de subvenciones de otras áreas del Ayuntamiento para la misma actividad.
- La actividad debe cumplir con la Ordenanza Municipal reguladora del uso y fomento del euskera en el ámbito municipal de Baztan. Así como el Decreto Foral 36/2024, de 17 de abril, de actos públicos y sostenibilidad, publicado en el Boletín Oficial de Navarra nº 91, de 3 de mayo de 2024.

3. Presentación de solicitudes.

- 3.1. Las solicitudes deberán ser realizadas por la presidencia o representantes de las APYMAS.
- 3.2. Las solicitudes se presentarán, debidamente cumplimentadas, de manera telemática a través del Registro electrónico del Ayuntamiento de Baztan [Sede Electrónica - BAZTAN](#) por la persona que detenta legalmente la representación de la asociación.
 - El plazo de presentación será hasta el 3 de noviembre de 2025 inclusive.
 - La presentación a la convocatoria implica la aceptación de las bases, y las solicitudes deberán cumplimentarse según el modelo facilitado
 - El órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento de concesión de las ayudas económicas será la Alcaldía u órgano en el que delegue.
 - Valoración. La comisión de valoración competente para realizar la propuesta de Resolución de las solicitudes estará compuesta por: concejala de cultura, técnica de cultura y una o un concejal/a nombrada por cada grupo político. Asimismo, la comisión de valoración podrá requerir el asesoramiento de personal técnico que no sea miembro de la comisión de valoración.
- 3.3. Las solicitudes se presentarán conforme al Anexo I de la presente convocatoria de subvención e irá acompañada de la siguiente documentación:

- Relación de actividades (conforme al modelo Anexo II) con todas aquellas actividades de las que se dispongan los datos necesarios en la fecha que finalice el plazo de presentación de solicitudes de subvención.
- Compromiso escrito de hacer constar en los materiales de difusión y publicidad de las actividades que optan a subvenciones municipales el escudo del Ayuntamiento de Baztan y la frase “Colabora: Ayuntamiento de Baztan”.
- Certificaciones acreditativas de hallarse al corriente de sus obligaciones fiscales con la Hacienda Foral y con la Seguridad Social.
- En el caso de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Baztan se comprobará de oficio.
Así mismo, previamente a la propuesta de concesión, se comprobará de oficio que no tienen cantidad pendiente de pago en la Tesorería Municipal.
- Declaración responsable de la representación legal de la asociación solicitante, indicando que la asociación se encuentra inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno de Navarra, manifestando que la documentación presentada en dicho Registro no ha sufrido modificación alguna, según modelo Anexo III.

3.4. La subvención será la correspondiente a un porcentaje de la cantidad aceptada, teniendo en cuenta —de modo general— que la cantidad máxima de la subvención se fijará en un 70 % del presupuesto. Si el coste real final es inferior al coste total inicial previsto, la subvención se reducirá proporcionalmente, ajustándose a las cifras finales.

Las asociaciones beneficiarias no podrán recibir más de 2.000 € de subvención.

3.5. Presentada la solicitud, se comprobará que la documentación presentada cumple con lo exigido en las presentes bases. Se concederá a las asociaciones solicitantes un plazo máximo de 10 días naturales, a partir del día siguiente a la notificación, para subsanar los defectos. En el caso de que no lo hubiera hecho una vez transcurrido este plazo, se archivará la solicitud y se tendrá por desistida a la entidad peticionaria.

Los requerimientos se realizarán por correo electrónico dirigidos a la dirección que se presenta en la solicitud.

4. Criterios de reparto

El Ayuntamiento de Baztan estudiará las solicitudes presentadas y otorgará las subvenciones atendiendo a los siguientes criterios:

- a) Se repartirá un 20% del total de la partida presupuestaria, en partes iguales entre las solicitudes admitidas, siempre que justifiquen mínimamente ese porcentaje.

- b) El carácter formativo de las actividades. Como máximo 10 % del presupuesto aceptado.
- c) Se priorizan las actividades que tengan relación con la cultura local. Como máximo 10 % del presupuesto aceptado.
- d) Favorecer el uso y la promoción del euskera. Como máximo 10% del presupuesto aceptado.
- e) Se valorará la participación de la ciudadanía. Se tendrá en cuenta el trabajo del voluntariado. Como máximo 10% del presupuesto aceptado.
- f) Se valorará que la actividad sea organizada y desarrollada por la entidad solicitante y sus miembros. Como máximo 30 % del presupuesto aceptado.
- g) Se valorará el trabajo en común entre diferentes entidades con sede social en Baztan. Como máximo 10 % del presupuesto aceptado.
- h) Se valorarán la realización de actividades fuera de la sede social de la entidad, es decir, las que tengan lugar en las restantes localidades del valle. Como máximo 10 % del presupuesto aceptado.

5. Resolución de las subvenciones

La resolución de la presente subvención se realizará mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de este Ayuntamiento, del cual se dará traslado a las asociaciones interesadas y se publicará en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento, dándose un plazo de 15 días naturales para que, en su caso, las Apymas puedan renunciar a la subvención concedida.

6. Justificación de la subvención

6.61. Para que pueda expedirse la orden de abono del pago es imprescindible que la APYMA acredite que se han cumplido las condiciones exigidas en el acuerdo de concesión y en las presentes bases.

Para ello, antes del 3 de noviembre 2025 se entregará de manera telemática a través del Registro electrónico del Ayuntamiento de Baztan ([Sede Electrónica - BAZTAN](#)) por la persona que detenta legalmente la representación de la asociación.

- Justificación de Gastos (según modelo Anexo IV). Los gastos tendrán que justificarse mediante facturas, nóminas, etc., originales o copias compulsadas, emitidas conforme a la legislación vigente, relacionándolas ordenadamente por actividad subvencionada. Únicamente se admitirán recibís cuando las actividades no se puedan acreditar por otro medio y, en todo caso, la persona que firma el recibí no ha de tener la condición de empresaria o profesional, en cuyo caso estaría obligada a expedir y entregar la correspondiente factura. El recibí debe contemplar los siguientes datos: nombre y apellidos, NIF y domicilio de la expedidora y

destinataria; descripción detallada de la operación o servicio; su precio total y, lugar, fecha y firma de quien recibe.

Los recibos y las facturas deberán ir acompañados de los justificantes de pago bancarios correspondientes.

Salidas culturales. Se admitirán los gastos de desplazamientos fuera del valle a actividades culturales, así como los gastos en concepto de entradas (visitas guiadas, entradas a museos ...).

En caso de que los desplazamientos se realicen en coches particulares, en la documentación justificativa del desplazamiento deberá aparecer quién ha llevado el vehículo, origen y destino del desplazamiento, el objetivo del mismo y la fecha. En el caso de que el desplazamiento se realice por medio de una empresa de transporte se deberá presentar la factura justificante del mismo, debiendo constar en la misma los datos que la normativa legal exige, así como la descripción detallada de la actividad o servicio realizado (origen-destino del desplazamiento, objeto del mismo, fecha).

Se presentará un Anexo IV por cada actividad subvencionada.

- Declaración que acredite las obligaciones del punto 7.2.
- En su caso, documentación acreditativa de otras subvenciones recibidas por el mismo concepto, en la que se especificará claramente qué actividades concretas recibieron subvención. Deberá aportarse un documento firmado por la representación legal en el que se especifique la subvención recibida, las actividades a que se ha dedicado, su presupuesto, sus ingresos y su déficit.

Las actividades que hayan recibido otras subvenciones no podrán optar a la subvención municipal, a no ser que el déficit de las mismas no se haya cubierto en su totalidad por la subvención recibida.

6.2. Presentada la justificación de la subvención, el Ayuntamiento comprobará que la documentación presentada cumple con las condiciones expuestas en el punto 6.1 de las presentes bases.

7. Obligaciones

7.1. Las asociaciones solicitantes quedan obligadas a comunicar al Área de Cultura cualquier cambio que se produzca en el desarrollo de las actividades subvencionadas.

7.2. Las asociaciones solicitantes quedan obligadas a hacer constar en los materiales de difusión y publicidad de las actividades el escudo del Ayuntamiento de Baztan y la frase "Colabora: Ayuntamiento de Baztan".

7.3. En toda la documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del proyecto o actividad, se deberá emplear un uso inclusivo y no sexista del lenguaje y las imágenes, evitando cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas, y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y

pluralidad de roles e identidades de género(a estos efectos las entidades beneficiarias pueden consultar "La Guía sobre estrategias de comunicación incluyente: el Género como prioridad" disponible en: <https://labur.eus/ComunicacionIncluyente>

- 7.4. Las asociaciones solicitantes deberán aportar una memoria con datos desagregados por sexo de las personas usuarias o beneficiarias de la actividad subvencionada, y del personal adscrito a la ejecución del proyecto o actividad.

8. Supuestos de incumplimiento y efectos

Procederá el reintegro total o parcial de las cantidades recibidas y las exigencias del interés de demora desde el momento del pago de la subvención, en los siguientes supuestos.

- a) Incumplimiento de la finalidad para la que la subvención fue concedida.
- b) Obtención de la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello por causas imputables a la persona beneficiaria.
- c) Incumplimiento de la obligación de justificar el destino de los fondos percibidos.
- d) Concurrencia con otras **subvenciones del Ayuntamiento de Baztan**, salvo compatibilidad de las mismas.
- e) Modificaciones o incumplimiento de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión.
- f) Obstrucción o negativa en la obligación de sometimiento a las actuaciones de comprobación citadas en la presente convocatoria.
- g) Otros supuestos regulados en las normas o bases específicas.

La resolución de reintegro de la subvención será adoptada por el órgano concedente, previa instrucción de expediente con arreglo a la legislación general aplicable.

Las cantidades a reintegrar, tendrán la consideración de ingresos de derecho público y será de aplicación para su cobranza lo dispuesto en la normativa vigente en materia de recaudación.

9. Aceptación e interpretación

- 9.1. La participación en esta convocatoria supone la aceptación de todas sus bases.
- 9.2. Corresponde al Ayuntamiento de Baztan la interpretación de las bases en todos sus aspectos.

10. Infracciones y sanciones

Las infracciones y sanciones en materia de subvenciones y ayudas públicas se regirán por lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

11. Normativa reguladora de subvenciones

La presente convocatoria se regirá por las bases recogidas en este documento y —en lo no previsto en él— por lo establecido en la siguiente normativa: Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, Ley Foral de la Administración Local de Navarra, Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra, Ley Foral de la Hacienda Pública de Navarra y, de forma supletoria, la Ley General Presupuestaria, y Normativa estatal sobre subvenciones”.

Anexo I

Anexo II

Anexo III

Anexo IV